



*Bigarren Lehendakariodea eta Lan eta Enpleguko Sailburua
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo*

AGINDUA, 2023KO URRIAREN 6KOA, BIGARREN LEHENDAKARIOEDE ETA LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA, 2023KO URRIAREN 9, 10 ETA 11RAKO DEITUTAKO GREBAN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GAIXO ETA ISTRIPUA IZAN DUTEN PERTSONEN GARRAIOAREN SEKTOREAN GIZARTEARI EMATEN ZAIZKION EZINBESTEKO ZERBITZUAK MANTENDUKO DIRELA BERMATZEN DUENA.

ELA, LSB-USO, LAB, UGT, CCOO eta ESK sindikatueta ordezkariek greba deitu dute Euskal Autonomia Erkidegoko anbulantzieta gaixo dauden eta istripua izan duten pertsonen garraioaren sektorean, 2023ko urriaren 9, 10 eta 11rako.

Grebarako deialdiaren helburua Lan Agintaritzari bidalitako jakinarazpenean jasota dago, eta hasitako espedienteetan jasota dago.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta osasuna. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako oinarrizko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarrizko eskubideetako bat bera ere.

Edonola ere, aurreko premisa ondorioztatu ondoren, nabaria da oinarrizko eskubideak murriztuko dituen neurri orok proportzionaltasun-printzipioa zorrotz bete behar duela eta, hori lortzeko, hiru betekizun edo baldintza bete beharko ditu neurriak: hori aplikatuz gero proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo «egokitasun-judizioa»; kasua aztertu ondoren helburu hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatu izana, edo «premia-judizioa»; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun judizioa, zentzu hertsian». Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa eta ezinbestekoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhertasunez jokatzea. Hori guztia dela-eta, ziurtatze horrek berme gisa jardun behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta, betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela —amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan—, baldin eta haien interesak grebaren bidez babesteak komunitateari edo funtsezko zerbitzuaren hartzaileari zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien erreibindikazioek edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, aurrekoa kontuan hartuta eta greba-deialdi honen aurrean, grebaren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Jarduera-eremuari dagokionez, lehen esan bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko anbulantzietan gaixo dauden eta istripua izan duten pertsonen garraioaren sektorean deitutako greba da. Denbora-eremuari dagokionez, 2023ko urriaren 9, 10 eta 11n egingo da greba, lanaldi osoan.

Anbulantzia asistentzialen zerbitzua Larrialdietako Garraio Sanitarioaren Sarean (LGSS) integratzen da, eta OSAKIDETZAren Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak eskatzen dion premiazko garraio sanitarioaren eskaerari erantzuten dio, lan egiten duten lurralde-eremuan. Halaber, estalduratik kanpo dauden eremuetara joan behar dute, asistentzia-premiak direla-eta aipatutako Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak hala eskatzen duenean.

Anbulantzia ez-asistentzialen zerbitzuek (konbentzionalak eta garraio kolektibokoak) programatutako garraio sanitarioaren eskaerari erantzuten diote, baldin eta zerbitzu horiek erabiltzea gomendatzen duten arrazoi medikoak badaude. Halaber, OSAKIDETZAren zentro sanitarioetara edo Osasun Sailak kontratatutako edo hitzartutako zentroetara tratamendua jasotzera joaten diren pazienteak garraiatzen dituzte, garraio arrunta erabili ezin badute.

Beraz, deitutako grebak pertsonak arrazoi klinikoengatik bakarrik lekualdatzeari eragiten dio, eta haien egoerak galarazi egiten die garraio bide arruntetan lekualdatzea; beraz, horretarako bereziki egokitutako ibilgailuak behar dira.

Larrialdietako Garraio Sanitarioaren Sarearen (LGSS) kasuan, zerbitzuaren erabiltzaile izan daitezke EAEn bizi diren edo ez diren herritar guztiak, baldin eta osasun-arrazoiengatik, gaixotasunagatik edo istripuagatik, osasun-langile insituek artatu edo osasun-zentro batera eraman behar badituzte artatuak izateko; eta asistentziarik gabeko anbulantzia konbentzionalen eta garraio kolektiboko anbulantzien kasuan, erabiltzaileak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren eta horiek erabiltzea gomendatzen duten arrazoi medikoak dituzten paziente guztiak dira.

Argudio gutxi edo bat ere ez dago kontuan hartzeko greba-deialdiaren eraginpean dauden osasun-garraioeko enpresek garatutako zerbitzuak ezinbestekoak direla herritarrentzat; izan ere, zerbitzu horiek erabat ez emateak premiazko osasun-arreta eta

premia atzeraezina behar duten pertsoneri eragin liezaieke, lekualdatzeko benetako ezintasuna, eta horrek lehen aipatutako osasunerako edo bizitzarako eskubidearen aurka egingo luke.

Hain zuzen ere, zerbitzu hori ez emateak, kasu honetan greba-egoera baten ondorioz, kalte larriak eragin ditzake, eta istripua izan duten eta/edo gaixorik dauden pertsonak ahalik eta azkarren lekualdatzen ez badira, pertsona horiek behar duten osasun-laguntza ez jasotzeagatik bizitza galdu ahal izango dute. Arrazoi horiengatik, sektore horretan ematen den zerbitzua funtsezkotzat hartu behar da komunitatearentzat, eta, beraz, premia aitortuko eta atzeraezineko prestaziotzat.

Azaldutako guztiagatik, horrelako grebak gutxienerako zerbitzurik ezarri gabe egiten badira, grebarekin lortu nahi den helburua baino askoz kalte handiagoak eragin ditzake, pertsonen osasuna arriskuan jar baitaiteke, eraginpeko enpresek ematen duten zerbitzua funtsezkoa eta oinarrikoa baita. Hori dela eta, Gobernu Agintaritzak agindu honetan zehazten diren gutxienerako zerbitzuak ezarri behar ditu, gatazkan dauden eskubideen funtsezko edukia bateragarri egiteko: komunitate osoaren interes orokorra eta langileek greba egiteko duten eskubidea.

Ezartzen diren gutxienerako zerbitzuei dagokienez, une oro bermatzen da zerbitzu horiek ez direla alderdietako baten nahierara geratuko. Horretarako, zerbitzu horiek egiteko eraginpeko langileen ehunekoa zein den jakiterik ez dagoenez, horiek egiteko deia larrialdi-egoera baten ondorio izatea planteatzen da, koordinazio-zentro batek hala eskatuta, edo mediku-ziurtagiriaren bidez egiaztatzea.

Ospitaleen arteko presazko garraioari eta sortzen diren presazko garraioari dagokienez, betekizun gehigarriak ezartzen dira, gauzatzen diren zerbitzuak benetan funtsezkoak diren zerbitzuak ematea bermatzen duten gutxienerakoekin bat datozela bermatzeko.

Era berean, antzeko ezaugarriak zituzten zerbitzuei eragiten zieten aurreko greba-deialdietan ere eman zen 2020ko azaroaren 10eko Agindua, Bizkaiko LGSS larrialdi-zerbitzuan gaixoak eta anbulantzian istripua izan zutenak garraiatzeko zerbitzuaren enpresa emakidadunetan greba-deialdia egitekoa.

Nahiz eta orduan agindutako gutxienerako zerbitzuak ez diren deialdi honetako gutxienerako zerbitzuak finkatzeko premisa juridiko loteslea – doktrina konstituzionalak galarazitako inferentzia –, aukera ematen dute egiaztatzeko zer eragin positibo edo negatibo izan dituzten, deialdi horietako gutxienerako zerbitzuek ezarritako babesei dagokienez, agindu honek babestu nahi dituen eskubide eta ondasun konstituzionaletan – grebarena barne –. Horregatik, agindu honek orduan emandako gutxienerako zerbitzuei eusten die.

Hori dela eta, Lan Harremani buruzko Errege Lege-Dekretuaren (martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-Dekretuaren) 10.2. artikulua aipatzen duen prozedura hasi da, eta entzunaldia eman zaie ukitutako aldeei, enpresa-elkarteei eta sindikatuen ordezkari, baita Foru Aldundiari ere, alegazioak egin ditzaten gizartearentzako funtsezkoak diren

zerbitzu hauek bermatzeko beharrianari buruz, bai eta, hala badagokio, estali beharreko gutxieneko zerbitzuak proposa ditzaten ere.

Konstituzionaltasuna aitortuta duen arau horretan (Konstituzio Auzitegiaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [RTC 1981\11]), Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2 artikuluekin bat etorriz (artikulu horretan honako hau ezartzen baita: «eskubide horren erabilera arautzen duen legeak beharrezko bermeak ezarriko ditu gizartearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko»), gobernu-agintaritzari ematen zaio hainbat motatako berme-neurriak hartzeko aukera greba-kasuan funtsezko zerbitzuei eusteko, eta neurri horietako bat da administrazio-ebazpen bidez jarduerari eusteko ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak ezartzea, eta lan-prestazio hori eskaini behar duten langileei haiek bete ditzaten eskatzea.

Hori dela eta, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2 artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da, eta idatziz eman zaie entzunaldia eraginpeko alderdiei, gobernu-erabakiaren eraginpean egongo diren zerbitzuei eta langileei buruzko proposamenak egin ditzaten.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 3. artikulua titularrari esleitzen dizkio irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) lan-legeria betearaztearen arloan bereganatutako eskumenak. Zehazki, 2.j) apartatua: zerbitzu publikoak edo premia aitortua eta atzeraezina duten zerbitzuak ematen dituzten enpresa, erakunde eta instituzioei eragiten dieten greba-eskubidea egikaritzen den kasuetan, erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatzeko behar diren bermeak ezartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, bigarren Lehendakariordeak eta Lan eta Enpleguko Sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritza hartuta, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehena. - 2023ko urriaren 9, 10 eta 11rako, lanaldi osoan, Euskal Autonomia Erkidegoko anbulantzietan gaixo dauden eta istripua izan duten pertsonen garraioaren sektorean zerbitzuak ematen dituzten langileen greba-eskubidea baliatzeko, ondoren zehazten diren gutxieneko zerbitzuak mantendu beharko dira::

1. Larrialdi-zerbitzuak, Koordinazio Zentro batek eskatzen duen osasun-garraioa presazkotzat hartuta, edo mediku-ziurtagiriaren bidez egiaztatzen bada, zerbitzu hori betetzeko aurreikusitako langileen % 100ek artatuko ditu.
2. Hemodialisi-tratamenduetarako, onkologikoetarako eta eguneko ospitalerako programatutako garraioa, bai eta ospitale arteko premiazko garraioa eta presako garraioa ere, baldin eta:
 - a) mediku-ziurtagiriaren bidez egiaztatzen denean.
 - b) ospitaleko langilerik ez egotea zerbitzu hori egiteko.
 - c) ohatila erabili behar denean. Era berean, ohatila erabili behar duten ospitaleko altek eragindako garraioa, mediku-ziurtagiriaren bidez egiaztatzen bada.

Zerbitzu horiek zerbitzu horri estaldura emateko aurreikusitako langileen % 100ek emango ditu.

Bigarrena. - Dagozkion administrazio-izapideak betez gero, aipatutako zerbitzuak aldatu ahal izango dira grebaren iraupenagatik, edo arrazoi higieniko biosanitarioak edo batbateko ezohiko arrazoiak direla-eta ezinbestekoa baldin bada.

Hirugarrena. – 1. Grebarako eskubidea erabiltzen ez duten langileek emango dituzte lehentasunez aipatutako zerbitzuak.

2. Langileen ordezkarietara entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko ditu gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileak eta langile horiek, txandaka, bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, orain arte esandakoak eta aurreko artikuluan nahiz indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu beharko dira.

Laugarrena. - Agindu honen aurreko apartatuetan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontratatzat joko dira eta horiek egiten dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

Bosgarrena. - Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

Seigarrena. - Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

Zazpigarrena. - Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela



jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daitekeela lan-agintaritza honetan, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen,

**BIGARREN LEHENDAKARIORDEA ETA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA**